

# TXITXILIBAKIO



## AURKIBIDEA


EDITORIALA.....	1. orrialdea
AKTUALITATEA.....	2. orrialdea
ELKARRIZKETA: ANTZERKIA.....	8. orrialdea
IPUINA.....	12. orrialdea
ELKARRIZKETA: SENDABELARRAK.....	14. orrialdea
FITXEROA.....	17. orrialdea
AHOLKUAK.....	19. orrialdea
ELKARRIZKETA: PAKO IRIONDO.....	21. orrialdea
ESKALADA.....	24. orrialdea
SUPERSTIZIOAK.....	26. orrialdea
PARAPSIKOLOGIA.....	29. orrialdea
HOROSKOPOA.....	32. orrialdea
OROIMENEN TXOKOA.....	33. orrialdea
ELKARRIZKETA: TOTEM.....	35. orrialdea
KOMIKIA.....	37. orrialdea
AGENDA KULTURALA.....	41. orrialdea
JAIK.....	45. orrialdea
TXITXILITXOKO.....	46. orrialdea
DENBORAPASA.....	49. orrialdea

# TXITXILIBAKIO



**1. ALEA**

**1990 ko UZTAILA**



EDITORIALA



HASIERA BAT DA.

"ERRATZEN EZ DEN GIZON BAKARRA, EZER EGITEN EZ DUENA DA".

# GAZTETXEA...

## IZARREN HAUTSA EGIN BATETAN BILAKATU ZEN BIZIGAI HAUTS HARTATIKAN USTE GABEAN NOIZBAIT GIÑADEN GU ERNAI

Gaztetxearen egoeraren arrazoiak ezagutzeko eta ulertzeko, bertako ordezkari batekin elkarrizketa bat mantendu genuen:

Tx.\_ Nolako egoera bizi du gaur egun Gaztetxeak? Azalduko zeniguke zertan datza arazo hori?

GAZ \_ Udalak, proiektu urbanistiko bat prestatu du Elgoibarren zenbait gauza egiteko. Proiektu horretan Gaztetxeak ez du tokirik.

Tx.\_ Hori al da arrazoi bakarra?

GAZ.\_ Bai. Udaletxera joan giñen arrazoi bila baina esan ziguten ez etortzeko "con historias ". Ez dago irtenbiderik, Gaztetxea bota egingo dute. Arazoa da ez digutela ematen lokal alternatiborik.

Tx.\_ Zein da udalaren erantzuna arazo honen aurrean?

GAZ.\_ Pelota pasatzen ari dira hemendik hara, udalak diputazioari eta honek udalari.

Tx.\_ Zerbait egiteko asmorik ba al duzue?

GAZ \_ Ezin gara " mobidetan " hasi, Zazpikirekin berdin gertatzen zaigu. Botatzea nahi badute botako dute.

Tx.\_ Herri kontzientzia?

GAZ \_ Herriak ikusiko du ekin-tza positiboak egiten ditugula: kontzertuak, antzerkiak, " mobida " interesgarriak orokorrean. Gainera aire librean zine bat prestatzeko asmoa dugu.



Tx.\_ Azken finean zer da Gaztetxe bat?

GAZ.\_ Gazteak elkartzan diren toki bat, barnean heurok pentsatzen duten ekintzak eginez. Arazoetatik hitzegiteko, lagunekin egoteko...

Tx.\_ Noiz botako dute Gaztetxea?

GAZ.\_ Edozein momentutan izan daiteke, Gaztetxearen ordean zer jarriko duten erabakitzen dutenean botako dute. Gaztetxearen ondoan daude eskabadorak zain.

Tx.\_ Barnean geldituko al zarete botatzeko orduan?

GAZ.\_ Alperrik izango da. "txakurrak" etorriko dira Gaztetxetik ateratzeko.

Aitzaki bat behar zuten Gaztetxea ezabatzeko eta azkenean aurkitu dute.

Tx.\_ Nola sentitzen zarete?

GAZ.\_ Inpotentzi handi batekin, ezin dugu arazoa konpondu, inpotentzi zentzuzkoa dugu gure barnean.

Udalak ezin du ulertu 30 "tipoko" elkartzea eta ekintza desberdinak burutzeko gauza positiborik denik, instituzioetatik kanpo dagoen alternatiba bat gara. Alternatiba bat izateak "jorobatu" egiten ditu.

Tx.\_ Edozein gazte?

GAZ.\_ Bai. Teorian bai. Ez dut ulertzen zergaitik ez den gazte jende gehiago sartzen.

Tx.\_ Ez da izango beldurraren antzerako zerbait, hau da jendea ez dela eroso sentitzen barnean, pixkat "ambientetik" kanpo?

GAZ.\_ Gaztetxea denentzat irekia dago, bakoitzak bere iritzia eman dezake asanbladetan.

Tx.\_ Auzokoekin dituzuen harremanak onak al dira?

GAZ.\_ Haseran arazoak eduki genituen musikarekin, altuegi zegoela zioten. Ondorioz kontzertuak larunbat arratsaldeetara pasatu ditugu.

Benetan lotsagarria da lau zuhaitz jartzeko Gaztetxe bat botatzeko, behintzat lokal alternatibo bat eman dezatela. Pertsona asko erreta dago jadanik arazo honekin.



Gaztetxearen inguruan sortu den gai korapilatsuan (botatzea alegia) beste protagonistarønen ikuspuntua jaso nahi izan dugu.

Horretarako Juaristi jaunarekin udaletxeko urbanismoko zinegotziarekin ondoren eskeiniko dizuegun el karrizketa ízan genuen.

TXI.-Zer esan diezagukezu ,nalako proiektu urbanistikoari buruz?

J.-Malako proiektuaz?...Momentu honetan ez dago proiekturik.

TXI.-Baina malan eskabadora eta lan gileak ikusi ditugu azken egunotan eta badakigu malako parkea haunditzeko intentzioa duzuela.

J.-Beno dagoen gauza bakarra eta ez daukazue zertan zeharka galdetu beharrik, nik zuzenean galdetzen badi-dazue zuzenean erantzungo bait di-zuet. Elgoibarko "norma subsidiarioetan", hauk izanik Elgoibar nolakoa izango den esten dutenak, malako zona horretan ez dela zuek aipatu nah.

didazuen edifizio hori, Gaztetxea ageri, ez dago mapetan marrazturik, ordenaziotik kanpo gelditzen da. Beste adibide bat gurdia zibilaren kuartela da hau ere ordenaziotik kanpo gelditzen da eta hau ere bota behar dugu. Orduan, edifizio edo etxe bat ordenaziotik kanpo gelditzen den momentuan, automatikoki demolitu beharreko edifizio bilakatzen da. Zergaitik? ba teknikoeak erabaki dute urbanismo aldetik Elgoibarrek gehiago behar duela plaza bat edifizio hori baino, bera plaza bat baino parke haundiago bat. Hori kontutan, hartzen erabaki zen Gaztetxearen derribaketa; baina ez bakarrik gaur eguneko korporazioak hartutatako erabakien arabera, aurreko korporazioko normetan ere ageri zen erabaki

Baina jakin nahi baduzue, nohiz botako den Gaztetxea... ba oraindik ez dakigu. Hori gobernuaren komisiolari dagokion gai bat da.

TXI.-Pentsatu al duzue beste edifizio batetan bertako gazteentzat?

J.-Nik uste dut hori ez dela niri



dagokidan galdera, ni urbanismoko komisioren buru naiz, nik egiten dudan gauza bakarra, herrian jadanik aprobatuta dauden norma jarraitzea da. Baina beno pertsonalki, ia gustatuko litzidakeen gaztetxe bat egotea edo ondo irudituko zitzaidan? ba bai zergaitik ez. Jubilatuek lokal bat daukate eta beste hainbat asoziazioek ere badauzkate, beraz gazteak eskubide guztia daukate lokal bat euki ahal izateko. Gertatzen dena da jokatutako behar dutela besteek jokatzen duten erregela berberekin. Jubilatuek direktiba bat daukate, beste taldeek ere zuzendaritza talde bat daukate, estatuto batzuk... Urtean zehar egin beharreko aktibitateen txosten bat bidaltzen digute subentzioak lortzeko... Beraz, aktibitate kulturalak burutzen badituzte, ordenaturik eta lar perspektiba batetik... nik ez dut uste inork inungo trabarik jarriko duenik!

TXI.- Hitzegin al duzue honi buruz beraiekin?

J.- Nere aldetik esan dezaket ez dudala ofizialki gaztetxe inorekin hitzegin, baina uste dut hori ez dagokidala niri, kultur sailko lana da, urbanismokoa baino gehiago, baina badakit norma dela niregana galde egiten etortzea prentsan publikatu bait da urbanismo sailak gaztetxea bota nahi dela, baina beno... nik uste dut urbanismoa ikuspegi zabalago batekin ikusi behar dugula, piska bat zabalagoa izan behar garela eta analizatu behar dugula Elgoibartar denak ere berean tratatuak izaten direla etxe honetan.

Beraz jubilatutako batek

aktibitate bat egin nahi badu eta aktibitate hori udaletxeak subentzionatzen badu, zergaitik ezin du laguntza berebera jaso? Noski anal duela baina normatiba berdinean sartzen. Ez dakit, nik uste dut gauza argia dela, zuek zer uste duzue?

TXI.- Guk uste dugu gazteei beste edificio bat eman beharko litzaiekoela.

J.- Gauza bat da, beste edificio bat ematea, edo beraientzat egokitutako lokalekin lokal bat ematea, horri inork ez dio ezetz esaten, baina lokal hori emateko, gauzak behar diren bezala egin behar dira. Gauzak ordenu batekin egin behar dira, ezin diogu lokal bat eman errepresentanterik ez duen kolektibo bati, zeini emango litzaioke edificioa? inori... Udaletxeak manejatzen duen dirua, Elgoibartar guztiek ordaintzen dituzten zergetatik dator. Elgoibartar guztiek, beraz, jakin behar dute, udaletxeak kolektibo bati dirua eman ezker, kolektibo honek ondo inbertitzen duela diru hori, bere dirua, eta ez "poteak" hartzera joaten. Zuk poteak hartzeraino joan nahi baduzu, zure diruarekin joaten zara. Nik uste dut raziozko erabaki baten barnean eraman behar dela gaia,

TXI.- Ez al dira Gaztetxetik protesta-etaztera etorri?

J.- Etorri badira ere, eta hori nik ez dakit, ez dira niregana etorri. Gainera etorri balira ere niregana ez dut uste etorriko zirenik. Nik uste dut guzti hau aurretiko arazoa dela lehenagotik datorrela.

Nik uste dut gure herriko kolektiboen zuzendaritzar edo gure kolektiboak nola eramaten direnean oinarritu behar garela. Ez dirudi lojikoa denik, kolektibo batek, nahiz eta honek oso ondo funtzionatur, ez eukitzea errepresentanterik. Kolektibo guztiek izaten dituzte sozioen bilerak, zuzendaritza edo ordezkariak aukeratzeko, gero direktiba honek eramango ditu aurrera kolektibo horren proiektuak..

Nik uste dut hitzeginaz konponduko litzatekeela gauza, eta beste zerbait lortuko litzateke. Orain galdera bat, gazte guztiak joaten al dire gaztetxera?

TXI.- Beste leku askotara ere ez dira gazte guztiak joaten baina horregatik ez dira bptatzen...

J.-Baina ez al duzue uste, gazte guztien biltzar bat egin beharko litzatekeela? Ze niri ez zait ondo iruditzen... bestela bi edo hiru gaztetxe egin beharko genituzke... edo klubak. Nik uste dut dialogo eta rasonamendu arazoa dela.

Geroago zinegotziak mapa batetan Elgoibarko beste proiektuak erakutsi zizkigun eta hau komentatzen zigun parkeari buruz.

J.-Eta mapan ikusi ezkerro, hain txikia izanik galdetzen duzu, eta honek ez al du merezi parke eder eta handi bat izatea? Ba igual bai ez?

TXI.-Horren txikia izanik agian ez du merezi.

J.-Nik uste dut baietz...

Hau izan zen, Juaristi jaunarekin izan genuen elkarrizketa. Iritzia eta ikuspuntu desberdinak jaurtiak daude eta egun batetik bestera bali teke gaztetxea Elgoibartik desagertzea.

BEHEKO ARGAZKIAN IKUSTEN DEN BEZALA, ELGOIBARKO PARROKO BERRIAK GAZTETXEAREN ARAZOA KONPONDUKO DUELA DIO/ PARROKO BERRIAK ESAN DU GAUZA ASKO ALDATUKO DIRELA HERRI HONETAN/!! ONGI ETORRI !!

CE ACABO ER PROBLEMA DEL "GASTEYE", TODOS EOS DE MONAGUILLO CON MIGO. LO DOMINGOS TODO DIO A MISA Y NA DE EUZKERA TODA LA MIZA EN CRISTIANO



Pelli90

ELGOIBARKO PARROKO BERRIA DON PASCUAL "RAMBO"

# AMA BEGIRA ZAZU... TEATROA!

Ekainaren 10-ean, "Ama begira ezazu" antzerkia ikusi ahal izan genuen Elgoibarren.

Saioa bukatu ondoren, Eneko Olasaga, lanaren zuzendariarekin izan ginen.

TXI.-Wola definituko zenuke zure burua, idazle gisa, antzerki zuzendari gisa...

E.-Idazlea ez dut uste, ze gaur egun dedikazioa ez diot ematen horri, bai idatzi bai baina gehiago gidoiak, eta T.B., zinea, antzerkirako historia batzu... Literatura espreski egitea baino, bera bada literatura, baina gehiago zerikusia dauka ni sartuta naqoen munduarekin, antzerkiarekin.

TXI.-Noiz hasi zineten obra montatzen; noiz bururatu zitzaizuen ideia?

E.-Beno, historia egin zuten bi lagunak, Elena eta beste neska batek, Zestoako topaketetan sketx moduko bat egin zuten ba ildo honetan eta urten zun "de la hostia" eta ordutik Kontxi eta Elenak beti zeukaten asmoa zerbait egiteko hemengo historia eta gauzeekin eta orduan, jua den negun, pasa dena ez aurrekoan, denbora zeukaten, ez zeukaten momentu hortan gauza haundirik egiteko eta idazten hasi ziren. 4 sketx idatzi zituzten eta aurkeztu zizkiguten niri eta bi

gainontzeko aktoreei. Asko gustatu zitzaizkigun eta beste bi gehitu zizkioten piska bat motza gelditzen bai zen. Hori orain dela urte bate bukatu ziren testuak, ensailatzen pasa den uda guztia eman genuen eta martxan Urrian estrenatu eta orain arte.

TXI.-Ez daukazue asmoa beste zerbait egiteko?

E.-Hombre asmoa bai baina gertatzen da nik ez dakit zergaitik, baina aurtan bukatu dugula lan pilo batekin eta ez daukagu denborarik beste montaje batekin sartzeko. Ez dakigu, igual udazken edo negu aldera bai. Ideiak eta badauzkagu beste batetarako baina oraindik idazten hasi gaube

TXI.-Eta zergaitik izan da montaje hau horren arrakastatsua; agian ETB funtzioa"-n agertzeak indarra eman zion edo bestelakoa da arrazoia?

E.-Nik uste dut bestela ere gauza asko egon direla. Gera espektakulo txiki bat, edozein lekutan sartzan gara, euskera herrikoian egina dago, zituazioek ere euskera horren erabi-

lera eskatzen dute...Orain arte egir ditugun antzerkietan ezin zen horre lako euskara erabili ze, pertsonaiak ere ez ziren tipo honetakoak. Holako zituazioak aukeratzea, umore aktoki guztietara doa eta bestalde, nik uste, aktoreak "de puta madre" daude.

Ez da elementu bakar bat...Gero ere jendeari hitzegitea hemengo gai eta eqoerataz, hemengo gauzetaz, lehendabiziko aldiz identifikatua ikusten dela eszenario baten aurren. Nik uste jendea horren egarri dagoela. Beste hainbat gauza bezala, ora indik ere genero asko daude landu ez direnak.

TXI.-Hala ere badira beste mila antzerki euskaraz soilik eginak, baina horrenbeste arrakasta oso gutxitan ikusi da, inoiz ez esateagatik...

E.-Iguale ez dituzte honek dauzkan ezaugarri guzti horiek. Hau da, beste edozein herritan teatro komertzial izan zitekeena, baina pasatzen da ikusten dezula zein medioekin eginga dagoen ez dagoelako beste era bat. Egoera normal hipotetiko batetan hau izango litzateke teatro komertziala baina guk egiten degu egoera kaxkarrean...

Umeaz aparte, hauek ez bait dute ulertzen ikusi arren, publiko guztiari heltzen zaio. Baina hala ere, bai, E.T.B-k izan zuen eragina.

TXI.-Haseera baten publizitateak asko lagunduko zuen....

E.-Beno Azpeitian estrenatu genuene an ordurako jende pila bat enteratu ta zegoen ta gero ahoz aho pasatzen da. Gazte batek ikusten du eta amari



Zuzendaria: Eneko OLASAGASTI

esten dio,honek kuñatari eta holako kateak sortzen dira ze guk publizitate bestea beste obrekin bezela egin dugu ez degu gauza espezialik egin.

TXI.-Badakigu onizko galdera dela baina hala ere gustatuko litzaiguke jakitea zein den zure eritzia gaur egungo euskal antzerkiaren egoeraz.

E.-Honbre,ez dakit,gaizki dago oraindik ez?Baina gaizki dago gauza pila bat egiteko daudelako,nik uste det orain dela sei zazpi urte atzera be giratzen badegu ,guk asko ikasi degula denbora honetan,eta hori orain egiten diren espektakuluetan antzematen da.Nik daramatzat hontan sei hamar urte inguru eta hau beste asko bezala ofizio bat da.Eta ordun ikusten dezu,guk hemen dauzkagu Euskadi guztiko aktore zaharrenak,hortik aurrera denak nere edadekoak dira eta ordun,zer egin dezakegu?denbora behar da jendea heltzeko,ontzeko... espektakuloak ere ofizioak dira.


TXI.-Eta jendearen partetik ba al dago zaletasunik?

E.-Begira,guk orain dela zazoi urte egiten genituen espektakuluak gaur egungo leku berdinetan,eta jendea etortzen zen 10-40 inguru,gaur egun beno gurea ezin da kontatu,baina bai beste montaje batzutan "Agur Eire"-kin eta beste batzuekin 150-200 gutxi gora bera dira etortzen direnak. Hori bost urtetan.Eta guk obra honekin demostratzen duguna da publikoa badagoela.Portzentaiak ikusten badiugu obra hau ikusi dute 50.000 pertsonak eta hori pasada bat da ze

bakarrik 500.000 euskaldun gara,osea euskadiko %10-ak ikusi du obra hau,hori zuk esaten diezu espainole: eta espainoleko %10-al ze obra ikusi du,4 miloi pertsonak...bat ere ez.Alde batetik esten dezu,"hostia" aber hori zeinek lortzen duen!Baina klaro beste era batetan ikusten dezu ,ze lan egoeratan lan egin behar dezun...Baina nik uste dut publikoa badagoela.

TXI.-Eta medioak,diru laguntzak,zer moduz dago gaur egun atal hori?

E.-Ba hori gaizki antolatuta dago. Bai gaizki antolatuta dago ze bueno nik uste dut gu hasi ginenean ez genekien zer zena antzerkia ta bueno ikasi degu denborarekin,baino agintariek ere ez zekiten .Gertatu da,denbora pasa denean guk piska bat ikasi degula eta haiek ez dutela ezer ikasi



Eta hor desoreka agertzen da. Talde batzuk gehiago laguntzen dira.... Espektakulo hau gobernuaren laguntzarik gabe egin gendun, ta bueno gainera piska bat arto sentitzen gara hortaz. Gainera nik uste antzerkiak ez luke diru instituzionala behar guztiz, bestela bere menpe egongo ginen, hor zentzura agertuko litzateke eta azkenean ez genuen jan deari interesatzen zaiona egingo.

Dirua gutxi partitzen da, nik uste dagoen moduarentzat dirua gastatu daitekeela Euskadin. Baina beno ez du interesatzen antzerkiak, gehio interesatzen zaie zinea, Txillidaren eskultura bat... Hori betikoa da.

TXI.-Eta ikasi non ikasten da aktore izaten, ikasi badaiteke. Adibidez Donostiako antzerti izan al daiteke aktore izan nahi dutenentzat eskola ona?

E.-Hor, antzerkian, ez dagoena da formula jakin bat beste gauza batzutan bezala "regla de tres" bat ez dago. Ikasi horixe ikasten dela eta teknika beti ona da. Esan nahi det doai berezi bat, ez daukan pertsona bat ere irits daitekeela lanaren bidez aktore on bat izatera. Jende batek doai haundiago bat dauka eta hoiak sortzen dira, baina nik uste gaur egun teknuika eta ikasteak beharrezkoak direla. Gertatzen da, klaro, bukatzen dezula eskola eta badirudi ez dezula ezer ikasi. Gero hor beste ikasketa bat dator, publikoarekin Biana bai eskolak beharrezkoak dira beno orain ez dago oso maila ona baina ezer baino gehiago beti da.

TXI:-Gau egun ba al dago antzerkitik bizitzerik?

E.-Bai bhal da. Beno ni antzerkitik bizi naiz. Ez antzerkitik bakarrik ETB, kursiloak eman behar dituzu... baina beno gu honetara dedikatzen gara. Antzerkitik bakarrik oso zaila da, beste gauza batzuk egin behar dituzu, "pluri enpleoa" nolabait.

Jende amateur gisa hasten da ta poliki, poliki zuk erabaki dezakezu aktore izatera Madridera joatea... baina han hemen baino askoz ere okerrago dago, askoz ere lan gitxiago dago, hemen behintzat lan egiten degu, gehienetan guk antolatzen dugulako. Esate baterako guk talde bat sortu genuen orain dela urte batzu eta hortik jende pila pasatuz joanda. Gauza da giro honetan denak ezagutzen garela eta beti zaude "antzerkitik" nor pasatzen den ikusten, jendea deitzen duzu montaje batetarako, kasting-ak egiten dira filmeetarako, presentatzen zara, zure argazkia hor dago eta piskanaka mundu hortan sartzen zara. Edo prestatzen dozu skatx bat eta presentatzen diezu "funtzio koei", ez?. Ez dakit mundu nau da piska bat "buscarse la vida".

# INPOSIBLEA DA, BAI

Gaueko ele ixil eta bakartien ohiartzuna entzun nuenean, ene logelako kandelaren negar malko likin eta urtuaren zapore mingotsaren sentsazioa dastatu izan banu bezala sentitu nintzen.

Orduan ikusi zintudan.

Iluntasunean barne zure isladaren itzala somatu nuen eta lekua leku izkiriartzen ari nintzen orri hura haize bolada gisa zirriborratu zenean jakin nuen zure arnasaren aieru xamurra soilik zela.

Gogoratzen dut amak txikiyan eginiko promesa hura.

Hiru urte nituenean goizero ene ametsak kontatzeko eskatzen zidan Gauero nire mundu misteriotsu, irudiagarri horren fantasiako, amoltsuzko eszena koloreztatuak azaltzen nizkion. Hori bai, nire alfabetu murriztu eta bereziarekin, beti ere era guztietako anitz deskripzio asmatu gehituz.

Nire heriotzarekin solasa kontatu nion, orduan heriotz hura pertsonai abstraktu eta biluzik zetorkidan lanbro humela besterik ez izan arren.

Nire gorputzarekiko erakarpen margula marraztu nion sapai narriotsutik hatzeman nezakeen odol jarioaren usaia biriketari zapuztuz.

Nire arimarekiko hutsa, ezereza izkutatu nion, dantzatu nion etengabe erortzen ziren elur malutak ziruditen olatu bits partikulen barne.

Nire amodiozko lerro lazarria lizuna abestu nion inoiz soma ez zitzakeen ezti goxoz puzturiko beirazko nota gardenen menpe.

Eta guztiak ametsak izanik ere inposibleagoa suertatzen zitzaion nolatan ni bezalako haur moko bategen horrelako lilurak sor arazten zizkion. Esperiebtzi berak inoiz inori eraktsi ez bezalako lilura akomodatuak.

Inposibleagoa, ordea, bera ere inposible izanik, denborak berak bezala, nire itzala sortu zuen unean berea janaz, nire negarra entzun zen unean bere itoa irentsiz.

Baina egia da, bai. Nik behintzat horrela sinisten dut.



Horregatik diot gaur une hartan somatu zintudala. Badakidalako jakin, zu izan zinela nire angoruam mugitzen zen sorgin sutsu hura.

Horregatik diot suteak mendia estaltzen duen une honetan, erreka gainean lausotzen den hilera anaranjatu hortako arraia argalena haizela hi.


Edomon, edonoiz, edomola bizi gauzatzen den unea, besterik ez.

Eta bestela galdetu niri, gaueko ele ixil eta bakartien ohiartzuna entzutean, zergatik naizen naizena aurrean dudan ispiluan nire begiek darioten sua itzaltzen duen area ikusten badut

Eta bestel galdetu niri. Bizi naizen bezala hiltzen banaiz orduan jakingo dut oraingo hau ere nire haurtzaroko ametsen ilusioa baizik ez dela.

Bitartean, esnatu artean, goazen jolasera ama.....

Bete duzu zure promesa.



# SENDABELARREN ILDOTIK IZADIAREN JATORRIRA



Azken urteotan medikuntza naturakak hartu duen arrakasta ikustean eta guztiok, gehienok ere ezer gutxi dakigularik gai honetaz arlo honetan lan egiten duen mediku batekin hitzegin genuen.

Iturbe jaunak medikuntz ikasketak burutu ondoren Eskoziara joan zen bertan espezializatzeko asmoz gero Frantzian "Dietetika eta elikadura" ikasketak bete zituelarik. 17 urte daramatza sendabelarrekin lanean, goizez hospitalean onkologiko eta geriatrico sailetan eta arratsaldez konsulta pribatuan.

TXITXILIBAKIO.- Zein desberdintasun gago medizina ofizial eta naturalaren artean?

ITURBE.- Azken finean helburua ezin da desberdina izan, medizina guztien helburua gaixo, pertsonen osasuna izan behar da. Lehendabizi osasuna mantentzen irakatsi behar da eta gero, osasun hori galtzen denean, erreku-eratzten.

T.- Baina hala ere bitartekoak desberdinak dira, ez?

I.- Begira, ez daude bata bestearen aurka. Hori sinis arazten diguten fantasma bat da. Kontra interesak egongo dira, edo

kultura, informazio edo edukazio falta bat, baina berez ez daude kontra, ezin dira egon bien helburua berdina bait da.

Bakoitzak erabiltzen du berari iruditzen zaion medio egokiena edo hobereena. Izan ere medizina klasiko. ofizialak farmakoak erabiltzen ditu, produktu kimikoak, eta sendabelarrek ere konposizio kimikoak dituzte.

T.- Baina sendabelarra naturala da, ez?

I.- Sustantzia guztiak atomoekin eginak daude, denak dira naturalak, gizonak ez du ezer sortzen. Jakin behar dena nola erabili da, mementu konkretu bakoitzaren arabera zein den baliagarri.

T.- Baina azkenengo emaitzari begiratuz gaixotasun bat berdin sendatzen du betek zein besteak?

I.-Ondo erabiltzen badituzu eta gorputzari bere oreka berreskuratzen laguntzen badiozu, bai.

T.- Eta ondorioak gorputzear berdinak dira?

I.- Hor jakin behar duzu zein sustantzia darabilzun esku artean, zein bentaja eta zein kalte sor araz ditzakeen.

T.-Sendabelarrek ba al dituzte efektu sekundario hoiak?

I.- Ah klaro! ASko kaltegarriak dira, mortalak ere. Sustantzia natural guztiak ez dira onak, onak dira gure konstituzio genetikoari laguntzeen diotenak.

T.- Zein da azken finean medizina naturalaren eremua?

I.- Medizina naturalak askotan elikaduraren mundua erabiltzen du ikaragarri inportantea dena, basikoa. Bestalde sendabelarrak, hidroterapia, homeopatia eta beste hainbeste daude

T. T.- Hoberena orduan zer da, biak konpajinatzea?

I.- Hoberena mementu bakoitzean zure gorputzak bahar duena zer den jakitea da eta horretarako zer den egokiena. Insulina behar baduzu hori hartzea, zirujia bada aurrera eta dena horrela, gauza bakoitza bere mementuan.

T.- Gaixotasun baten aurrean egoera psikologikoak garrantzi handia dauka, ez?

I.- Ikaragarria, ikaragarri mundu potentea da. Begira gaixo bati ikuspuntu baikor bat izatea asko lagunduko dio, baina, era berean, aspektu mentala, intelektuala, espirituale, fisikoa, elikadura, dena, guztia zaintzen badugu are sendatzeko posibilitateak handiagoak izan go dira.

T.- Belarjaleetaz beti esan da txarto elikatuak daudela.

I.- Ondo eraman eskero dieta guztiak dira onak. Ideala "ovolac-tovegetarianoa" da mundu animal eta begetaetik elikagai hobere-nak aukeratzen bait ditu, komeni zaizkionak, hala nola, arraultzeak esnea eta deribatuak, barazki eta fruituak...

T.- Eta haragiaz, zer?

I.- Begira proteinak beharrezkoak dira pertsonarentzat. Aberatsena arraultzea da, esne eta esnekiak ondoren, arraia gero eta haragia azkenik. Gauza da haragia sartzean proteina gehiago dituen beste elikagai bat kendu beharra daukazula. Adibidez demagun futbol ekipo bat dugula eta bertako 11 jokalaria ezin hobekak direla. Zure lehengusu bat sartzen baduzu jokatzeko nahiz eta ez izan oso ona bera bai baino hobea den beste bat ateratu beharko duzu, Ez? ba gauza bera gertatzen da haragiarekin ere.

T.- Egia al da haragia jateak agresibitatea areagotzen duela?

I.- Hori ez dut oso garbi ikusten

Beno haragiak bere hondakin asko ditu abere baten zelulak bait ditu, metabolismoarentzat nahiko astunak dira...baina beno beste ezer ez baduzu jateko?

Baina, lehen esan bezala, horrerordez gazta zati eder bat edo katilukada bete mami jaten baduzu askoz hobeto izango duzu gorputza.

T.- Jendea zertara joaten da zuregana, zein da gaixotasun ugariena?

I.- Hospitallean soportu nutrizional daramat, onkologikoa bata, geriatricoa bestea. Gaitz oso grabekak izaten dira eredu dietetiko egokiak ezarri behar direlarik, bitaminak, eta, azken batean, ekipo lan bat eskatzen duena. Etxean, konsulta pribatuan, denetarik bainan batez ere elikadura aldetik dieta berezian bila etortzen da jendea

T.-Horrenbeste garrantzi dauka janariak?

I.- Totala. Zu jaiotzean karga genetiko batekin zatoz eta karga hori galtzeko posibilitateak inguruarekin, elikadura sikologiarekin lotuak daude

Honenbestez bukatu genuen beti ere tarteka gizarte, egungo egoerari buruz mintzatu zitezazigularik. Azken finean, bere ustez, gizarteak da aldatu behar dena.

# SENDABELARRAK

Astero-astero, eta fitxa hauen bitartez, gaitz desberdinen aurka egiteko balio ahal dezaketen sendabelar desberdinak ezagutu ahal izango dituzue, bere erabilera eta prestaketaren berri izango duzue. Gero zuek ikusiko duzue landareak mendian bilatu edo dendan erosi nahiago duzuen.

LANDAREA: Txikori belarra (diente de león).

GAIXOTASUNA: Behazun xixkuak, diabetea, anemia.

ERABILERA: Tisana.

PRESTAKETA ETA DOSIA: Goilaretxo erdi sustrai txikitu (edo eta sustrai eta hosteen arteko nahasketa, kantitate berdinetan), ur hotzez betetako katilu batean ezarri, 15 minututan beratzen utzi, eta katilukada bat goizean hartu eta beste bat arratsaldera, hau dena 4-6 astetan zehar.

---

LANDAREA: Xarbota (tomillo).

GAIXOTASUNA: Eztula.

ERABILERA: Bainua.

PRESTAKETA ETA DOSIA: Litro bat ur bere lau goilarakada hoste txikituren gainean bota. 20 minututan beratzen utzi. Likidea keladore batekin pasatu ondoren, landare zatiak kentzeko, bainuko urari bota. 38º-tara bainatu 10-15 minututan. Sakonki arnastu urak botatzen duen lurruna.

# STANDARD BUREAU

Faint, illegible text covering the majority of the page, appearing to be bleed-through from the reverse side. The text is organized into several paragraphs and sections, though the content is unreadable due to low contrast and orientation.

# HOBETO LO EGITEKO ZENBAIT AHOLKU

Askotan entzun izan dugu, batez ere hirietan bizi den jendeak edo eta bizitza harrapatatsua daramanak, gauez jasaten dituela eguneko nekeen ondorioak. Ilintasunean sabaiari begira igarotzen dituzten uneak eragozteko piluletara jotzen dute. Baina badaude, hala ere, medio kimikoak alde batetara utziz, loak har gaitzan zenbait era. Hona hemen aholku batzuk. Frogatu eta ea nola dihoakizuen.

8:00 AM

I- Egunero ordu berean iratzar eta oheratu zaite.



II- Oheratu aurretik afari arina egin. Gixatu baten digestioa ordu t'erditik hiru ordotara burutzen da. Afari koipetsu baten ondoren, beraz, ohera joan aurretik bi ordu t'erdi gutxienez igarotzea komenigarria da.



III- Oheratu aurretik inolako ariketa fisikorik ez egin, bertitza baldin bada batez ere.



IV- Logela lasaia, ordenatua, selairu garai batetan kokatua, aire garbia bai baina korronterik ez duena, iluna eta lehorra izatea komeni da. Logela erosea izateaz gain, pertsona gustora sentitu behar da bertan.



V- Ohea lo egiteko besterik ez da erabili behar, kanpo gelditzen direlarik irakurtzea, jatea, lan egitea edo eta telebista ikustea.



VI- Tabakoa ere (gehiegian), loaldi atsegina eta lasai baten oztopo da.



VII- Kafea, tea edo eta kola duten edarien efektuak bi ordotara nabarmentzen dira, eta zazpi ordu igaro ondoren ere arrasteak nabariak dira. Lo egiterakoan arazoak dituenak, eguarditik aurrera, edari hauek alde batetara utz ditzala, beraz.




VIII- Alkohol pirka batek le egiten laguntzen du. Baina kantitate handietan, guztiz kontrako efektua sortzen du; lealdia era moztuan ematen da, etengabeke itzartzeak suertatzen direlarik. Intoxikazio etiliko batek sei astetako abstinentzia eskatzen du lealdi lasai baten erritmoa berreskuratzeko.

IX- Logurea dugunean bakarrik oheratu behar gara, ez aspertuta edo eta le orduak berreskuratu nahi ditugulako.



X- Siestari uko egin gaueko lealdia hobetzeko.




XI- Lealdiaren gorabera gehienak bakoitzaren egoera nerbioarekin guztiz erlazio naturik dauden. Herregaitik, lasaitzeko bide egokiak aurkitu behar ditugu, hala nola: autosugestia, arnasketa lasai eta pausatua, pentsamendu txarren alderatzea... Azken hau zenbakietan pentsatzen lor dezakegu, hauengan konzentratzean ez bait dugu beste ezertan pentsatzen. Gauean ibilaldi lasai batek, esne base batek, bainu epel batek edo eta infusio egoki batek learen bidea aurkitzen lagun diezagukete.



XII- Musika lasaia, ordu batez edo, eta tonu goxoan, onuragarria da.



XIII- Bakoitzak jadanik metodo rgoki eta berezi bat baldin badu, jarrai dezala, besteen aholkuek diotena kentutan izan gabe.



XIV- Gutxi le egiteak ez du garrantzirik, edonola ere, gerputzak berreskuratu bait ditu beharrezko dituen orduak.





## PAKO IRIONDO

Euskal mendizaletasunaren egoeraren berri edukitzeko eta Federakuntzaren historia apur bat ezagutzek arren, elkarrizketa bat eduki genuen Federazio beraren lehendakariarekin:

Tx.\_ Nolakoa izan ziren zure aurreneko pausoak mendizale bezala?

P.\_ Mendizale bezala 1940. urtean hasi nintzen. Garai horretan ez zegoen Morkaikurik, 3 urte beranduago fundatu zen. 1968. urtetik 1970 urtera federazioan ekin nuen martxa eta kanpamenduen delegatu bezala. Ondoren Morkaikuriko lehendakari bezala 6 urte emango nituen ( 1971-1976 ).

Demokratikoki aukeratua izan zen lehenengo lehendakaria ni izan nintzen. Deskantsu beharra nuela eta kargua utzi egin nuen, jendea ez zegoen adoz baina kargua utzi nuen. 1986. urtetik aurrera berriro ari naiz lehendakari bezala.

Tx.\_ Horrelako elkarte, soziedade eta adibidez expeditio famatu hoiak aurrera eramateko diru asko beharko da. Nondik etortzen zaizkizue subentzioak?

P.\_ Subentzioak Eusko Jaurlaritzatik, federazio espāñoletik eta kiroletako kontseilu nagusitik jasotzen ditugu. Gure funtzioa diru hori banatzea eta koordinatzea da. Azkeneko expeditioak adibidez dirua Eusko Jaurlaritzetik eta Euskal Herriko kutxetatik jaso du.

Expedizio bati subentzio bat emateko lehenengo aukeratua izan behar da balorazio baten ondoren.

Tx.\_ Benetan merezi du expedizio hoietan diru, lan ordu eta pertsona askoren ilusioak erabiltzea askotan gailurra ez menperatzeko?

P.\_ Bai, merezi du.

Lan ugari egiten da eta benetan gogorra, baina azkeneko emaitza harrigarria da.

Askotan ez dira burytzen gailurrak baina esperientzia positiboa izan bada, expedizioaren emaitza exitozat hartu behar dugu. Gainera istripuak kontutan hartu behar dira. Bizitza asko galdu dira mendian. Nahiz eta expedizio bat oso ongi prestaturik egon natura aurka badago ez dago zer eginik ( eguraldi gogorra )

Tx.\_ Euskal Herri mailan zenbat federatu daude, zenbat elkarte edo soziedade?

P.\_ Euskal Herria 3 federazio-tan banatua dago: Bizkaikoa, gipuzkoakoa eta Arabakoa. Guztira 14000 federatu daude eta 70000 sozio 160 soziedadetan elkaturik. Federatuek abantail ugari dituzte: emfugio mailan preferentzia dute, merkeago ateratzen zaie, exkurtsioak dituzte, istripuetarako seguro bat, aldizkari bat...

Tx.\_ Zer da mendizale izatea?

P.\_ Mendiak maitatzea eta barnean sentitzea da mendizale izatea. Afizio handia eta osoa eduki behar da. Afizio berezi hori urteekin irabazten da eta ez oso bizkor ibiltzen, bestela laister aspertuko zara gaur egun bezala. Mendian egun zoragarriak pasatzen dira baina egun txarrak ere, ondo preparatua egon behar eta zenbait sakrifizio egin behar dira: gauetz juerga gutxiago eta goizez lehenago esmatu.

Gainera expedizio hoietara joateko familia utzi behar da denboraldi luze batez eta oso gogorra egiten da. Afizio handia eduki behar da mendian egoera horretan gustora egoteko

Tx.\_ Nola explikatuta daiteke euskaldunen mendienganako zaletasun handi hori?

P.\_ Bizi guztitik gara mendizaleak. Oso mendi ikusgarriak ditugu gure ingurunean. Gure sentimenduak oso sakonak dira mendi batean aurkitzen garenean. Aukera asko ditugu gure zaletasun hau betetzeko. Kostaldean sentimendu hau ez da hain sendoa. Kulturalki oso positiboa da mendizaletasun hau.

Jendeak askotan ez du ulertze gure zaletasun hau baina dena informazio gutxi dutelako gertatzen da.

iii HAGO IXILIK  
MUTIL ZAHAR, HORI  
ENBIDIXA DEK !!!

iii ONDO ZEGOK  
FAMILIA MAITATZEA...  
... BAINA HONA EKARTZEA  
ERE !!!

!!! AMAIII  
KAKA!!!

SAGARMANTHA  
'90

AAIIII

Pioooo

Peli 90




# ESKALADA

Orain arte hiru zororen gauzat hartu izan den eta gaur egun goranzka doan kirol bitxi batetaz arituko gara gaurkoan: Eskaladaz.

Hasiera batetan, eta historia eginaz, eskalada, mendi jakin batzuk aurkezten zituzten zailtasunak (Pirineoak, Alpeak, eta beste mendi garai batzuk) gainditzeko konplementu bezala erabili ohi zen.

Garai hartako materiala, gaurkoarekin konparatuz, single, eskas, eta astuna zen. Ez ziren "arnesak" esistitzen (arnesa gerrian erabiltzen den konplementua da), eta soka, hau ere benetan eskasa, zuzenean gerriera lotu behar zuten.

Gaur egun materialak, erabateko aldaketa jasan du. Marka desberdine daramaten eguneroko leiak, kuntitiboki eta kalitatiboki hobetzera materiala eraldatzera, eramandu.



Guztiz materiale aurreratu, erabilgarri, arin eta erosoak egiten dira baina noski!, erosotasun hauek ere badute osagarri "negatibo" bat, gaur egun eskalada praktikatu nahi duen pertsonak aurkitzen duen trabarik "lodierna" dakarte beraienkin: materialaren garestitzea..

Baina ez da hau gaur egungo eskalada eta "aintzina"koaren arteko desberdintasunik nabarierena. Batez ere, mentalitatea izan da aldatu den arloa. Lehenko eskalada, mendiaren gailurra lortzeko bitarteko bat besterik ez zen, ez zuten eskaladaren zailtasuna bilatzen eta mendiko botaz eta motxilaz igotzen ziren.

Orain, mendiko bota haundi haien orde, "katu anka" deituriko bota berezi eta arinak erabili ohi dira. Filosofia guztiz aldatu da eta eskaladore hauen helburua zailtasuna da. Horretarako "eskoletara" jotzen dute. Eskola hauek, eskalada bakarrik praktikatzeko prestatuak dauden zonak dira, eta bertan eskaladoreek jadanik graduatuak dauden pareta ugari aurkitzen dituzte.

Pareta hauek igotzeko bide desberdinak, "bia" deituriko zailtasuna, orain arte pentsaezinak ziren muturretaraino eramanez dira. Hau izanda, teknika berrien agerpenari loturik, "eskalada deportiboaren" sorrera eragin duen faktorea.

Eskalada moeta honetan erabili ohi den materiala honako hau da:

- Katu ankak, (bota bereziak)
- soka
- Arnesa, (gerriko antzekoa)
- spresak



Hemendik gertu badira eskalada gune ugari eta hau izan da agian eskaladaren munduan murgiltzera jotzen Elgoibartar kopuruaren hazkuntza bultzatu duena. Gune hauek ondorengo zerrendan aurki ditzazkezu:

- Atxaete. (Durangotik gertu)
- Azpeitiko kantera.
- Santa Barbara. (Hernanitik gertu)
- Egino. (Araban)
- Etxauri. (Iruñeatik gertu)

Gune hauek, eguraldi ona egin ez kero, baina eskaladoreak ez dira guria eginik ere, eskalatu gabe gelditzen, badira estalitako lekuetan eskalatzeko prestatuak, "rokodromo" deiturikoak. Normalean entrenamendu gisa eta teknika hobetzeko erabiltzen dira. Hurrengoak, hemendik gertu aurkitu ahal izango dituzunak dira:

- Eibarko polikiroldegia.
- Bergarako polikiroldegia
- Zabaldu berri den Arrasatekoa

Beraz badakizue, goza itzazue inguruak eskeintzen dizkigun aukerak!

## ERITZI BAT EZTABAIDATZEN EZ DEN BAKOITZEAN, SUPERSTIZIO BILAKATZEN DA

Hegazkinetan ez dago 13. filarik. Bertsona batzuk ezker hankaz jeikitzen dira eta bada egunak zeinetan begibakar batek begiratu gaituela dirudien. Metroko biletea kapikua bada dena ongi joango delakoaren seinalea da baldin eta katu beltzik gure bidean gurutzatzen ez bada edo eta gatzik ez baizaigu mahaira erortzeen.

XX. mendea teknologikoki aurreratuen izanik bitxia da ezezagun, superstizioarenganako kultura nola berpiztu eta indartu den kusteak.

Bizitza aurrera doa gizonarentzat misterio bat bada ere.

Oskar Wilde-k "munduko benetako misterioa ikusten dena da eta ez ikustozina" esan zuen arren gizakiak beti izan du nolabaiteko erakargarritasuna naturatik at, esoteriko mailan sartzen den guztiarengan, arrazoitik kanpo gelditzen den guztiarengan.

Mundu ezezagun, ilun horretan oinarritzen du sarritan gizakiak bere zorte txarra eta bertara jotzen du, era berean, zorte ona izateko. Superstizioa zigorturik egon den mendeen ondoren, enpirikoki azaltzea ezinezkoa zen guztiaren arbuiape-naren ondoren bersortze, berpizte bat igerotzen ari gara. gaur, XXI. mendeko atea aurrean dugularik.



Superstizioa zormontasuna lortzeko desira konszientetik jaiotzen dela esan daiteke.

Praktika superstiziosoak magia, sorginkeria, amuletoak, talismanak, konjuro, metamorfosi eta "macia" bezala ezaguturiko arte asmatzaile guztiak dira.

Erlijio berak ere nolabait lagundu duela esan dezakegu. Alde batetik hor dago, egon, egiten duen deabruaren aipamena edo eta agerpen, dendaketa, mirariak... Aitarea-a egitea bera praktika superstiziozo bilakatu dela argi dago batzurentzat.

Hona hemen superstizio eza-gunenek :

### ASTEARTEA ETA 13

Egun hontan ez ezkontzeko ez eta itsasoratzeko aholkua dago. Mitologikoki asteartea Marteren eguna da, gerraren jainkoa, egun erasokorra beraz.

13a zenbaki arrunt bat da historikoki baina beti 12 gehi 1 bezala: Jesus eta 12 apostoluak, Carlomagno eta 12 pareak, Arturo eta Mahai Borobileko 12 zaldunak, eguzkia eta 12 planetak...

### JAURTIKITAKO GATZA

Duela asko gatza elementu baliotsua zen, urria. Banketeetan ohorezko tokia gatzontziaren alboan zen.

Gatza erortzean sorte txarra uxatzeko apur bat hartu eta sorbalda tik bota behar da.

### KATU BELTZA

Sorginak katu beltz bihurtzen direlakoaren ustea dago. Oilarra, bestalde, deabruaren metamorfosia da eta apoa Luzifer-ek infernuko arimek ematen dien janaria da.

### LEKU ITXI BATETAN ATERKI IREKIA

Indar meteorologikoei probokazio zuzena da. Euria sotfzako errito ugari daude, hala nola, kanpaiak jotzea edo eta bi laban gurutzatzea.

### ERAZTUNA

Ezkontzeko eraztuna emazte-gaiaren behatz bukaeraraino ez sartzeak emakumeak aginduko duela esan nahi du.

### "MAL DE OJO"

XVI. mendeko zenbait autore espainiarrek begi txarra botatzea ezkongabe, lisiatu edo gaitxoek begietan zituzten sustantzia txar batzuen bidez egiten zutela uste zuten.

### KONKORDUNAK

Ezbehar fisiko hau dutenak inteligentzi handiko pertsonak direla esan ohi da.

## BELARRIETAKO HOTSA

Norbait txartô ari da norberaz hitzegiten. Adiskide eta ezagunen zerrenda hasi buruz erreparatzen eta zarata bukatzean pertsona hori nor den jakiten da.

## HILEROKOA

Ezin da lorerik ikutu hauek ximeldu egiten bait, dira ez eta maionesarik egin moztu egiten bait da.

## ESKAILERA

Eskailera baten azpitik pasatzean hiruki magikoa puskatzen da.

Ehundaka gehiago daude ispilu bat puskatzea, ezker hankaz jekitzea, proiektuetaz burutu aurratik hitzegitea, ..

Sorte ona behatzak gurutzatzea, kaba erorian behatzak bustitzea, urte berria arrosaz jantziriko zerbaitez hastea edo eta kukuaren hotsa lehendabizi entzutean poltsikoak diruz beteak izatea...

Hona hemen mundu misterioitsu honetan erabiltzen diren zenbait hitz:

## MAGIA

Erritoen bidez lege naturalen aurkako efektuak lortzeko teknika:

- .-ZURIA: Helburu ona dauka.
- .-BELTZA: Helburu txarra.

## SORGINKERIA

Magia beltza da. Espiritu txar edodeabruekin paktatu duen sorginak daraman praktikari deritzo.

## AUGURIOA

Etorkizunean dagoen gertakizun baten seinalea da.

## AMULETOA

Zenbait arriskutik defendatzen duen objektua. Jatorri animala(hontzak, untxi hankak...), minerala(harri bitxiak), bejeta-la(4 orritako trebola) edo eta gizakiarra(txanponak) izan dezake.

## SORTEA

Indar irrazionala da gizabana-koaren borondateetik independienteki zenbait gertakizun determinibatzen dituen.

## TALISMANA

Klabe magiko batzuen bidez maneiaturiko objektua zeinaren bitartez pertsonak bere onerako indar kosmikoengan eragin bait dezake. Izaera aktiboa du ez pasiboa amuletoak bezala. Inskripzio koraniko, sinboliko eta antzekoak dituzte.

## KONJUROA

Txar bat uxatzeko edo eta on bat erakartzeko erabiltzen den formula magikoa da.



# PARAPSIKOLOGIA I, SARRERA

Parapsikologia, askok eta askok eta askok entzuna izango duzuen hitza izango da, baina ba al dakizue zertan datzan? Atal honetan, eta sarrera moduan, azaltzen saiatuko nartzazue.

Parapsikologia ez da zientzi ortodoxo bat, izatez. Egia esan ezkerre, zientzia konbentzional deitzen dugunak azter edo uler ezin ditzakeen fenomenoeak iker-tzen saiatzen da. Fenomeno horiek moeta askotakoak izan daitezke: psikikoak (telepatia, telekinesia, hipnosia, poltergeist-a, espiritismoa), magikoak (akelarreak, moeta desberdinetako magiak), eta talde zehatz batean sailka ezin daitezkeen beste batzuek, hala nola CHEI-ak (objetu hegalaria ez identifikatuak), ohi ez den objektu edo eta animalia desberdinen "euria", psikofoniak...

Ni, batipat, lehenengo meetako fenomenoez arduratuko naiz, zeren eta gure buruaren ahalmen misteriotsuak izanik, gure fazeta gutxi ezagun bat, interesgarrienak iruditzen zaizkit.

Teorian gutxienez, guztiok ditugun ahalmenak dira fenomeno psikikoak, nahiz eta emakumezkoetan gehiago agertu. Batzuen ustez, ahalmen hauek hereditarioak dira, hau da, gurasoek semei pasatzen dieten faktore genetiko bat.

"Psi" faktore hau pertsona gustietan eman arren eta, gaitasun hereditario batzuen antzera, gizonetan eta emakumeetan egon arren, emakumezkoetan manifestatzen da sarriagotan (adibidez, emakume medium gehiago dago gizonezkoak baino) eta, gainera, emakumezkoen sentikortasun psikikoa gizonena baino handiagoa dela esaten da ("intuición femenina" delakoa honen heredu litzake).

Dirudienez, Psi fenomenoekin oso erlazionaturik dagoen burmuineko glandula bat dago, pituitaria izenez ezagutzen duguna. Gurintxa honen portaera ez da oso ongi ezagutzen, baina badakigu ia bizitza osoan bere aktibitatea oso baxua dela, pubertatean ezik. Bizitzako etapa honetan, gurintxa hau

suspertu egiten da: poltergeisten sorburuak arazoak dituzten gazteak direla diete batzuek, eta hau pituitariarekin oso erraz erlazionatu daiteke.

Psi fenomenoetaz hitzegiterakoan, edo eta zerbait irakurtzeko orduan, ezagupen edo nozio basiko batzuek izan behar ditugu, fenomeno sinpleenak ezagutu. Hauek dira:

-TELEPATIA. Bi pertsona edo gehiagoren artean ematen den komunikazio era da, eta mezuaren informazioa zuzenki burmuin batetik bestera gertatzen da, hau da, mezuapentsamendu soil bat litzake. Telepatiaren maila sinpleeneansentipen,

hitz soil, kolore edo irudien igerpena koka daitezke; maila gorenean esaldi osoen bidalketa aurki genezake, era honetan elkarrizketa telepatikoak lortuaz.

-TELEKINESIA. Fakultate honen, edozer gauza gogamenaren indarrez mugitzean datza. Gailare sinple batetatik hasita, mahai bat igotzeraineko indarra duten pertsonak daude, edo eta metalezko objektuak ekertzen dituztenak. Telekinesia, telepatiaren antzera, konzentrazio, praktika eta pazientziaren bidez garatu daitekeen ahalmena da.



-AURRIKUSPENA. Gertatu behar diren gauzak jakitean da. bi-  
hozkadetatik hasi eta tarota,  
kristalezko bola, kafearen  
hondakinak edo eta ezereen bidez  
etorkizunaren ezagupen nahiko  
zehatzera hedatzen da. Batzuek  
intuizio femeninoa deitzen du-  
tena ahalmen honen erabilpen  
praktikotzat har dezakegu.

Dehai hau, lehen esan beza-  
la, askoz ere zabaldugea dago  
emakumeen artean.

-PIROKINESIA. Gogoaren inda-  
rrez objektu edo bizidunei su  
emateko ahalmena da hau. Bapa-  
teko errekontzak azal ditzake  
pirokinesiak: bapatean pertso-  
nek su hartzen dutenean gerta-  
tzen da, azalean inolako arra-  
zoirik gabe, eta erreketan honen  
eragina pertsona beran soilik  
ematen da, jarrita dagoen te-  
kiak edo jantzita daramanak  
inolako markarik agertzen ez

dutelarik.

Beno, aurkezpen honen ondo-  
ren, datorren hilean fenomeno  
hauek eta beste batzuek zehaz-  
kiago aztertuko ditugu. Ira-  
kurtzea gustatzen baldin bazai-  
zue, Stephen King idazlearen  
libururenbat irakurtzea gomen-  
datzen dizuet. Interesgarriak  
izateaz aparte, oso onak dire-  
la iruditzen zaizkit. Hona hemen  
zerrenda

-Ojos de fuego, pirokinesiari  
buruz, batipat.

-El resplandor, aurrikuspina  
eta telepatiari buruz.

-Carrie, telekinesiaz.

-La zona muerta, aurrikuzpe-  
nari buruz, baita ere.



# HOROSKOPOA

ARIES/Martxoaren 21-etik

Apirilaren 20-rarte..


Suaren zeinua, positiboa, kardinala eta maskulinoa.

KOLOREA: Gorria..

MINERALKIAK: Burnia eta al-tzairua.

HARRIBITXIAK: Amatista, karbunkloa, koralina, diamantea, granatea, jaspea eta malakita.

LURRINA: Krabelina.



Zodiako lehenengo zeinua da Aries. Positiboa izanik eta, beti ere, bere izaera sutsua kontutan izanik, independentziaz jokatzeko du eta bere indarra agertu nahi izaten du.

Zeinu positibo eta negatiboen artean bereizketa bat egin beharrezko aurkitzen gara: lehenengoek, bizi zeinuak izanik, energia eta indarra ematen dutenak dira; bigarrenak zeinu formalak dira, eta zeinu positiboen indarrek eragiten dute beraien artean.

Ariesek burua gobernatzen du, eta ahariaren natura dauka.

Ahariak buruarekin zabalitzen dute beraien bidea, eta Aries zeinupean daudenek burua erabiliko dute: oso argiak izango dira, ideia aurrerakoak izango dituzte eta izpiritu sutsua, buruzagi ezin hobekak izango direlarik.

Eta zeinu honek burua gobernatzen duenez, bizi energiak ere bertan egingo dute lan nagusiak: buruargiak eta idealistak izango dira. Baina arrazoi berdinegaitik, gaixotuko den lehenengo atala izango da, buruko min eta bestelako gaitzak (nerbioak, adibidez) sarritan jasango dituztelarik. Aurpegia izango da euren egoeraren ispilua, eta gaizki sentitu ezkerre, segituan nabarmenduko zaie.

Leu zeinukoekin batzea oso komenigarri gerta dakieke Aries zeinukoekin, haren bihotza eta azken honen buruargitas una elkartuko liratekeelarik.

Ariesen natura edo izaera gaiztotu ezkerre, sutsuegia, borrokailea eta faltsua gerta daiten.

Zeinu honen "dharma" edo etorkizun/patua EGIA da.

# 1733: DIRUAREN EROTIKA

Gure burua "Elgoibartatzat" hartzen bsadugu ere, badira gure herriaren historian ezagutzen ez ditugun makina bat errelatu bitxi. Atal honen bitartez, hor nonbait, gure nagusien oroimenean gorderik dauden gertakizun hauetara hurbilduko gara

Gaurkoan, XVIII. mende bukaera eta XIX. hasierara egingo dugu bidaia.

Historia, 1733. ean hasi zen, gure protagonista, Ana Maria de Arenaza y Garate, Madrident hil zenean. Jaiotzez elgoibartarra izan arren ezkondu ondoren Madrid aukeratu zuen bizilekutzet.

Hil ondorengo bere nahia, bere dirua, aberastasuna, banatzea izan zen horretarako elgibarko emakume umezurtz eta behartsuak aukeratu zituen, honez gain bazegoen beste baldintza bat ere, hala nola, bere senid eizan beharra. Dirua, beti ere, 16.000 real vellon gutxi gora behera, ezkontza edo eta monja sartze kasuetan ematen zen. Guzti honen ardura "Patronato Real De Legos delakoaren esku gelditu zen, 1734an sortua. Patronato delako honen barruan, besteak beste, elgibarko udaltxea aurkitzen zen zeinek Ana Mariaren nahien aurka eginaz bere interesen arabera egokitu zuen dirua. Hain zuzen, erdia "Hospicio o casa de misericordia" sortzeko erabili zuen lehen zegoena, independentzia gerrako gastuek ordaintzeko saldu bait zen.

Pentsatzekoa da garai hartako emakumeek zer nolako buruhausteak izan zituzten batez ere beraien senidetasuna frogatuko zuen zuhaitz genealogikoak egiten eta dokumentu adieraazgarriak aurkitzen.

Aipatzekoa da 1841. urterarte ez zela, nahiz eta dokumentu eta zuhaitz mordoska bat jaso, benetako senitartekorik agertu. Agertu baziaren ere badirudi begiak itxi eta, beti bezala, beraien interes eta azpijokoak ase nahiz estaltzeko erabili izan zutela urte bakkoitzera-ko eman ohi zen dirua.

Horren frogara, udaltxeko artxibuetan aurkitu dugun salaketa gutun bat: Pedro Maria de Beristegui y Arenazaren arreba, behartsua eta senidea izanik, dokumentuak bidali zituzten inungo dirurik jaso gabe. Eskutitzean salatzen du, nola diru hori elizak eskuratzen duen hasera batetan Ana Mariak utzitakoaren aurka.

Bitxia da benetan udaltxeko artxiboetan urteetan zehar pilatzen joan diren goikoa bezain hainbat eta hainbat errelatu interesgarri daudela jakitea. Hurrengo zenbakian ere paper hori eta zaharkitu hoietan murgilduko gara gure arbasoen garaira bidaiatuz.

Aguirre  
Urbano con  
Magdalena de  
Coltaberna

Aguirre  
Maria Miguel con  
Sra. Isabel de Sa-  
rate

B. E. 1622. L. 2.  
C. E. 1648. L. 3. F. 2V. to

B. E. 1619.

Aguirre  
Maria con  
Juan de  
Cruz

Sarate  
Magdalena con  
Pedro de  
Arenara

B. E. 1656. L. 3. F. 131.  
C. E. 1675. L. 3. F. 108

B. E. 1645. L. 3. F. 36.  
C. E. 1670. L. 3. F. 92.

Cruz de  
San. con  
Domingo  
Otero

Arenara  
Ana Maria  
Fundadora

B. E. 1678. L. 4. F. 32. V. to B. E. 1673. L. 4. F. 56.

Moro  
Martolomeo  
de  
Mugueru

B. E. 1701. L. 5. F. 127.  
C. E. 1738. L. 4. F. 177.

Mugueru  
Juan con  
M. de  
Arillaga

B. E. 1739. L. 8. F. 63. V. to  
C. E. 1768. L. 5. F. 118.

Mugueru  
Juan con  
Sra. de San-  
tando

B. E. 1779. L. 10. F. 207.  
C. E. 1805. F. 235. V. to

Sablon  
de  
Sra. con  
Agustina  
Nauay

B. E. Eybar. en 16 de Set. de 1825.

Eugenio  
Sabido

# ILUSIOEN DENDA: TOTEM

TOTEM. Bilboko San Mames alamedan dagoen dendatxo txiki bat. Hala ere, bere tamainak ez du zerikusirik bere barnean gordetzen duenarekin: komikizale baten ametsak egi konzentraratu bihurturik, komiki pilatu mordoa.

TXITXILIBAKIO -Kaixo.

TOTEM -Kaixo.

Tx-Noiz hasi zineten dendaren lanarekin?

T-Hamairu urte dira, gutxi gora behera.

Tx-Nola hasi zineten, zela bururatu zitzaizuen ideia hau?

T-Komikien grina duen jendea dagoelako. Zuri zerbait gustatzen bazaizu, beste norbaiti ere gustatu behar zaio.

Tx-Normalki, ez dago hontara dedikatzen den liburudenda asko...

T-Ez dago liburuak atsegin dituen bezainbesteko jendekopurua, beraz, denda nahikotxe dago.

Tx-Zer meetatako jendea etortzen da komiki bila?

T-Denetik. Haurrak, gazteak, helduak...Denetik.

Tx-Eta zer meetatako komikiak saltzen dituzue?

T-Denetik, baita ere. Orain, batez ere, superheroiak. Bada-kizu, amerikar komikiak.

Tx-Komiki zaharrak ere badi-tuzuela ikusi dugu.

T-Bai. Katalogoz kanpo dauden gauzak bilatzean datza, denentzat egon dadin, zeren eta zenbaki atzeratuak edo orain editatzen ez diren gauzak bilatzen dituen jendea dago. Lan piskat suposatzen du horrek, baino...

Tx-Nola dago Euskadin komia-  
ren mugida?

T-Euskaraz?

Tx-Bai.

T-Ez oso ongi, ez ba. Ez dago  
komiki hauen bila etortzen den  
jende askorik. Liburu eta al-  
dizkari bila dijon gehiago  
egongo da, pentsatzen dut,  
baina nik ez dut prentsarekin  
lan egiten. Euskaraz saltzen  
diren komikiak Tintin eta As-  
terix dira gehienbat.






Tx-Komikiak egiten dituen he-  
mengo jendearen berri ba al  
duzu?




T-Fanzineetan lan egiten duen  
jendearen berri badaukat, bai-  
na ez dakit, ez du... beharbada  
goizegi da eraindik.



Tx-Beno, ez dugu beste galde-  
rarik. Eskerrikaske.

















ITSASALDEAN, EGJZKIA BADI HOA.



Mikel Cerezo

# Azafraniarraren heriotza

# AGENDA KULTURALA


## ENTZUTEKOAK

Euskal taldeen artean, besteak beste ondokoa dugu azkenaldi honetan atera berri den diska:

Potatoeren "ERRE QUE ERRE".

Ingelesez, berrüz, guk aukeratu duguna:


Mikke OLfield-en "AMAROK".



Azkenik gaztelanieraz:

Joakin Sabina-ren  
"MENTIRAS PIADOSAS".





Patxi zubizarreta.-  
"JESUS, MARIE TA JOXE"

Benetan euskera egoki eta landuan idatziriko liburu hau deabruak uxatzen dituen obra da.

Bi gazteen ihesi nahiaz mintzatzen da bidean saihestu behar dituzten iragañaren oihartzunez eta eskuratu behar duten etorkizun propioaren egarriaz.

**DOMINIQUE LAPIERRE**

# Más grandes que el amor



Planeta/Seix Barral

Dominique Lapierre.-  
"MAS GRANDES QUE EL AMOR".

Mediku, ikerlari, sendagile, gaixo eta inguruam mugitzen diren beste hainbesteren istorioa da. Egunez egun beren betebehar sufrimendu, oinazeen aurrean maitasuna bera baino handiagoak bilaktzen direlarik, IESA den bezalako etsai gogor baten aurka daramaten etengabeko borrokan bizi dira.

Aipaturiko hauetaz gain badaude beste zenbait liburu benetan gomendagarriak direnak.

**."El clan del oso cavernario"**


M.A. WELL.

Prehistoriari buruz da, garai misteriotsu, liluragarri hortan oinarritzen da trilogia hau, izan ere 3 liburuk osatzen bait dute obra.

**."Temblor"**

ROSA MONTERO.

Eta gazteentzat hor ditugu **"Timun mas"** zientzia fikziozko liburu zerrendak edo eta **"Barco de vapor"**. Liburu atseginak aurki daitezke batean zein bestean.



Bukatzeko, era berean, hona hemen azken liburu bat, 1989ko **"GRAN ANGULAR"** saria irabazi zuena hain zuzen.

**."La noche del eclipse"**

JOAN MANUEL GISBERT.

**IKUSTEKOAK**

**"AKIRA KURASAWA-ren AMETSAK"**

Akira kurosawa.

Antzesleak: Akira Terao, Martin Scorsese, Mitsuko Baisho.

Azken pelikula honetan, besteetan bezalaxe, Akira kurosawak bere istorioen irudigarritasun eta bere imaginaren edertasunarekin liluratu gaitu. Hau da, izan, zuzendariak efektu bereziak erabiltzen dituen lehenengo aldia, hau da, izan bere pelikularik pertsonalena. Zortzi istorio txikitara banatzen den filme honetan meatzu nuklearrak sor arazten dion kezka, bere VAN Gogh pintorearekiko miresgarritasuna, bere herriko kultura tradizionalarekiko errespetua eta naturarekin bakean bizitzeko beharra azaltzen digu. Zortzi istorio, zortzi amets, zortzi une esanahi sakonez beterik. Beharbada memento batzutan astuna egiten den filmea bada ere daukan paisai, fotografi eta edukiek pena merezi dute benetan.

## LEHIAKETAK\_\_

."arrasate 90" Literatur lehiaketa. Deba Garaian bizi, lan egin edo ikasten duten gazte eta helduentzat euskaraz.

Modalitateak: ipuina, poesia eta bertso-pauperak. Gai librea.

Sariak: modalitate bakoitzeko sari nagusiak: 50.000 eta 15000 Bi maila egongo dira, helduentzat eta gazteentzat(18 urterarte). Lanak Azaroaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira.

."Arrasate 90" Komiki, Argazki eta Bideo lehiaketak.

Gaiak eta sariak:

a) Komikia: "Arrasaten Gazteria". 40.000 eta 15.000 peztako akzesitak.

b) Argazkia: "Arrasateko bazter ezkutua".

30.000 pezetako bi sari eta 15.000 pezetako akzesitak.

d) Bideoa: gai librea, irudiek deba Garaikoak izan behar dute. 75.000 eta 25.000 pezetako akzesitak.

Lanak Azaroaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira.

."Irun hiria literatur sariak". Euskeraz nahiz gaztelera Ipuina, olerkia eta saiakera dira modalitateak. Gai librea.

Sariak:

a) Ipuina: Gaztelua eta 300.000 pezeta.

b) Olerkia: Gaztekoa eta 500.000 pezeta.

d) Saiakera: Gaztelua eta 700000 pezeta.

Sari hauek euskeraz eta gaztelera, modalitate bakoitzeko bana emango dira.

Uztailaren 31 arte da epea.

."Lazarillo" 1990 sariak. Estatu Espainoleko edozein hizkuntzatan idatzitako haur edo eta gazteei bereziki zuzendutako liburua.

Bi sari:

a) Idazleentzat: 500.000 ptakoa.

b) Ilustratzaileentzat: Beste 500.000.

Lanak Uztailak 15a baino lehen aurkeztu behar dira.

."Tokin Zaitegi" IV. itzulpen laburren saria. Edozein pertsonak har dezake parte.

Gaia: Ekialdeko Europaren aldaketa.

Munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako lanak izan daitezke gaztelaniatik ezik.

Sariak: 250.000 eta 50.000 pezetako akzesitak.

Epea: Azaroaren 1a baino lehen.

."Portugaletako Uri Urena VI. jendeaurreko Margo Sariaketa.

Eguna Uztailaren 22a (Igandea).

Edonork har dezake parte.

Gaia: Hiriko alde zaharreko zerbitu. Sariak: 1.a 65000, 2.a 30000 eta 3.a 20000.



# JAIAK



Uda eta oporrak jadanik gainean dauzkagularik aproposa iruiditzen zaigu inguruko herri eta festen zerrenda luzatzea:

## GIPUZKOA

AZKOITIA.....Abuztuak 15

AZPEITIA.....Uztailak 31

DEBA.....Abuztuak 16

EIBAR.....Irailak 3

ELGOIBAR.....Abuztuak 24

GETARI.....Abuztuak 6

MENDARO.....Uztailak 26

MUTRIKU.....Uztailak 22

SORALUZE.....Uztailak 25

ZARAUTZ.....Abuztuak 15

DONOSTIA.....Abuztuaren erdian

## BIZKAIA

ERMUA.....Uztailak 25

LEKEITIO.....Irailak 3

BILBO.....Abuztuak 13

## ARABA

GASTEIZ.....Abuztuak 4

# TXITXILITXOKO

Aldizkariko atal honetan, zuen mezuak, salerosketa-iragarkiak... eta nahi duzuen guztia jasoko dugu. Ezkutitzak ondoko helbide honetara bidal itzazue:

TXITXILIBAKIO: TXITXILITXOKO

SAN FRANZISKO 24.

Marisa, oso ipurdi beroa daukazu. Zurekin egotea gustatuko litzaidake. Lanbroa atzean, San Bartolome egunean, gaueko 12-etan.

8.mailako liburuak ditut, norbaitek beharko balitu, dei dezala telefono honetara: 749452.

Zorionak Martini bere 76. urtebetetzean, bere biloben partez, txintxo txintxo jarrai dezan eta urte askotarako, ez gehiegi.

Gaztetxe bat dugu salgai nahiko egoera onean, eta alkilerreko urtebeterako ordaindurik. Informazioa lortu

Zorionak Jaxoneri bere 19. urtebetetzean, bere lankideen partez. Egun ezin hobea igaro dezala.

Langabezian zaudetenok, adi!! Hartu zuen tresnak eta etorri guardia zibilaren koartela botatzera. Ongi ordaindua. Informazio gehiago udaletxeko urbanismon.

Ongarri elkarteko ziklo pornorako sarrerak birsaltzen dira, prezio erdian. Galdetu partidu berdearen bulegoetan.

Bost txakurkume zoragarri dauzkat, jabe bila dabilozanak. Interesetzen bazaizu, 725973 telefonora

Gaztetxe bat dugu salgai nahiko egoera onean, eta alokairua urtebeterako ordaindurik. Informazioa lortzeko udaletxera jo.



Jendea behar dugu udaletxeari "look" berria emateko. Laguntzera datozenei, taberna barruan, birra batzuk eskeiniko zaizkie. Gaztetxean galdetu.

Deba ibaiko bost arratoi eder salgai daude. Oso ondo geldituko dira zure etxeko egongelan, zure auzoko eta lagunei erakusteko. Muskurutxu elkarteko bulegoetan salgai.

Bost txakurkume zoragarri dauzkat, jabe bila dabiltzanak. Interesatzen bazaizu, 725973 telefonora deitu, eta oparituko dizkit.

Joxepak Erramuni: egunero ikusten zaitut zaharren biltokian, eta zutaz maitemindurik nago. Martxa nahi baduzu, galdetu nigaitik.

Aba-Lane. Asperturik bazaude bila nazazu plaza handiko arkupeetan gauero. Klase partikularrak ere ematen ditut. Prezio bereziak ikasle gazteeri.



# ESKUTITZAK

Ekainak 15 1990

## ZAZPIKI IRRATIA, OZTOPOAK GAINDITUZ AURRERA.

Bost urte ta erdi pasa dira da-  
goeneko 1984. eko Abenduaren azke-  
netan Zazpiki Irratiak bere lehe-  
nengo uhinak aireratu zituenetik.

Gazte talde baten ahaleginaren  
fruitua izan zem irrati librea  
gaurdaino iritsiko zela gutxik uste  
bazuten ere, hemen gaude Zazpikiko  
neska-mutilak inoiz baino indar eta  
ilusio gehiagorekin. Bost urte haue-  
tan Zazpiki irratiaren ibilbidea ez  
da askotan erraza izan. Oztopo eta  
traba ugari gainditu behar izan di-  
tugu herriko abotsa, gazteen abotsa  
zabaltzeagatik. Hala ere, irratiare  
inguruan elgoibartar dexente bildu  
eta antolatu da, gazteok ere badi-  
tugula geure alternatibak erakutsiz

Dakizuenetz aurten Gobernu Zibi-  
letik bi agindu jaso ditugu (Otsai-  
lean eta Apirilean) emisioak utzi  
eta irrattia desmontatzeko. Zazpiki-  
ren etotorkizuna kolokan ikusi du-  
gun arren aurrera joateko sekula  
baino motibazio gehiago daukagu.  
Argi dago 20 wattiotako potentzia-  
rekin ezin diezaikegula beste irra-  
tiei inolako kalterik egin (ez da  
hori gure nahia) baina aginteak, nos-  
ki, ezin dezake onartu bere potere-  
tik kanpo aritu nahi duen jendea.

Udalak izan duen jokaera ere  
salatu beharra daukagu. Gobernu Zi-  
biletik bidalitako meatxuaren aurre

an, eta orokorki bost urte hauetan  
udal ordezkariak izan duten jarre-  
raren ondorioz, badakigu bost axola  
zaiela gure irrattia, eta ere gehia-  
go, pozik ikusiko zutela Zazpikiren  
desagerketa.

Bestalde, uste dugu gure kolek-  
tiboak erakutsi duela diru oso gu-  
txikin eta inorengandik zuzenduak  
izan gabe egin daitezkeela gauzak  
elgoibarren.

Adierazpen eta emisio askatasu-  
naren alde egin dugu apostua. Zazpi-  
ki, irrati libre bat da, komunikabi-  
de plurala, herrikoia eta, era be-  
rean, alternatiboa eta kritikoa.  
Zerbaot aportatu nahi duten herri-  
tar guztientzat daude zabalduak gu-  
re irratiaren ateak.

Batzuk ez gaituzte ondo ikusten  
seguruenik ez dugulako nahi beti  
formal eta ixilik egotea, pretilean  
jarrita edo ta tabernaz-taberna.  
Ez dira garai onak: ideia erromanti-  
koentzat, baina Zazpikiren inguruan  
mugitzen garen neska-mutilek gogo  
nahikoa daukagu gutxienik beste  
bost urte betetzeko. Horrela izan  
dadila.


## ZAZPIKI IRRATIA.

Eskerrikasko aldez aurretik  
eta sortetik hoberena TXITXILIBAKIO-  
ren etapa berri honetan.

# DENBORAPASA



## . LABERINTOA.



GAZTE HONEK " POTE " BATZUK HARTZEKO ASMOA DU. ZEIN BIDETIK JOANGO BEHARKO DU GAZTETXERA?

## . KALKULO A.

AITORREK 6 " KALIMOTXO ", 4 PATXARAN, 12 KLARU ETA 5 SAN MIGEL EDAN DITU.

ZIGORREK 3 GIN-KAS, 5 PATXARAN, 2 SAN MIGEL ETA 8 KLARU EDAN DITU.

ZENBAT LITRO EDAN DITUZTE BIEN ARTEAN? ( 5 PATXARAN EK LITRO BAT OSATZEN DUTELARIK KONTUTAN HARTURIK).



KALKULO A: Zenbat litro? Ez dakat idetarik ere ez balna " pedua " edarrazkua izango dek, hori segurua.

ERANTZUNAK: LABERINTOA: Bide egokia bigarrena da. Zutik egongo ote da gaztetxea gaztea heldu orduko?

